

NAFARROAKO UDALERRIEN ETA KONTZEJUN FEDERAZIOAK 2016KO ABENDUAREN 16an EGINDAKO BATZAR NAGUSI ARRUNTAREN AKTA

BERTARATUAK:

Abaigarko Udala
Abartzuzako Udala
Agoizko Udala
Aiegiko Udala
Allingo Udala
Andosillako Udala
Antzingo Udala
Añorbeko Udala
Araizko Udala
Arangurengo Udala
Arbizuko Udala
Arellanoko Udala
Aresoko Udala
Arguedasko Udala
Artazuko Udala
Aurrabiako Udala
Atezko Udala
Azagrako Udala
Azkoiengo Udala
Azueloko Udala
Barasoaingo Udala
Barbaringo Udala
Bargotako Udala
Beintza-Labaiengo Udala
Beraskoaingo Udala
Berrintzanako Udala
Beteluko Udala
Bidaurrenako Udala
Cadreitako Udala
Castejongo Udala
Corellako Udala
Cortesko Udala
Doneztebeko Udala
Eguesibarko Udala
Elizagorriko Udala
Eloko Udala
Enerizko Udala
Erriberriko Udala
Esako Udala
Esprontzedako Udala
Esteribarko Udala
Etxarri Aranazko Udala
Etxauriko Udala
Ezporogiko Udala
Faltzesko Udala
Fiteroko Udala
Funesko Udala

Iruña Park hotelean (Arcadio María Larraona, 1, Iruña), bi mila eta hamaseiko abenduaren 16an, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, NUKFren Batzar Nagusi Berezia hasi da, aldameneko toki entitateen ordezkariak bilduta. Batzarraren buru den mahaia honako hauek osatu dute: Pablo Azcona Molinet jn., Jesús María Rodríguez Gómez jn. eta Berta Enrique Cornago and., presidentea, bigarren presidenteordea eta idazkari nagusia, hurrenez hurren. Hona hemen

GAI-ZERREDA

- 1.- 2015/12/18ko eta 2016/7/1eko batzarretako aktak onestea.
- 2.- Informazioa 2. presidenteordeari buruz (kargua utzi eta ordezteak).
- 3.- NUKFren 2016ko Kudeaketa Txostena onestea.
- 4.- NUKFren 2017ko Jarduketan Programa onestea.
- 5.- NUKFren 2017ko Aurrekontua onestea.
- 6.- Galde-eskeak

Presidenteak batzarrean bertaratutakoak agurtu eta mahaiko kideak aurkeztu ditu; ondoren, azaldu du zergatik ez den etorri Raquel Garbayo Berdonces andrea, NUKFko 1. presidenteordea.

1. gaia.- 2015/12/18ko Batzar Arrunteko eta 2016/7/1eko Batzar Bereziko aktak onestea.

Deialdiarekin batera igorrita 2015eko abenduaren 18ko Batzar Nagusi Arrunteko aktaren kopia eta 2016ko uztailaren 1eko Batzar Nagusi Bereziko aktarena, alde zuzenetik irakurri beharrik gabe, presidente jaunak galdetu du inork oharririk egin nahi dien akteak.

Batzarraren onespenera jarri da 2015eko abenduaren 18ko Batzar Nagusi Arrunteko akta.

Aho batez,

Galipentzuko Udala
Garinoaingo Udala
Garesko Udala
Genevillako Udala
Gesalazko Udala
Iguzkitzako Udala
Iruñeko Udala
Iruztzungo Udala
Itzako Udala
Kasedako Udala
Lakuntzako Udala
Lanako Udala
Larragako Udala
Ledeaiko Udala
Leringo Udala
Lizarrako Udala
Lizoain-Arriasgoitiko Udala
Lodosako Udala
Martzellako Udala
Mendigorriko Udala
Milagroko Udala
Muesko Udala
Murchanteko Udala
Murillo el Cuendeko Udala
Murillo el Frutoko Udala
Nabaskozeko Udala
Odietako Udala
Oibarko Udala
Ollarango Udala
Olorizko Udala
Oltza Zendeako Udala
Orisoaingo Udala
Oroz Beteluko Udala
Ribaforadako Udala
San Adriango Udala
Santakarako Udala
Tafallako Udala
Tebas-Muru Artederretako Udala
Tuterako Udala
Uharte Arakilgo Udala
Uharteko Udala
Untzueko Udala
Urraulbeitiko Udala
Villafrancako Udala
Villamayor de Monjardingo Udala
Villatuertako Udala
Zangozako Udala
Zareko Udala
Ziraukiko Udala
Zizur Nagusiko Udala
Zizurko Udala
Agezako Kontzejua
Antzingo Kontzejua
Arradako Kontzejua
Artikako Kontzejua
Aozko Kontzejua
Eritzegoitiko Kontzejua
Etxagueko Kontzejua

ERABAKI DA 2015eko abenduaren 18ko Batzar Nagusiko akta onestea.

Segituan, Batzarraren onespenera jarri da 2016ko uztailaren 1eko Batzar Nagusi Bereziko akta.

Aho batez,

ERABAKI DA 2016ko uztailaren 1eko Batzar Nagusi Bereziko akta onestea.

2. gaia- Informazioa 2. presidenteordeari buruz (kargua utzi eta ordeztea).

Presidenteak jakinarazi du NUKFko 2. presidenteordeza hutsik gelditu dela aurreko presidenteordeak, Javier Pérez Cuevak, alkatetza galdu duelako.

Azaldu du NUKFren Estatutuen 46. artikulua zehazten duela ezen, presidenteordeak hutsik gelditzen direnean, Batzorde Betearazleak xedatutakoari jarraituko zaiola.

Aukera bat baino gehiago izanik, Batzorde Betearazleak erabaki zuen Batzorde Betearazleak berak hautatuko zuela, bere kideen artean, NUKFko bigarren presidenteordea, eta, Jesús María Rodríguez Gómez, Ribaforadako alkatea, izendatu zuen bigarren presidenteorde.

Presidenteak adierazi du Batzorde Betearazlearen izendapenak bide ematen duela aurreko 2. presidenteordea ordezteko parte hartzen zuen batzorde eta kontseilu guztietan.

Orobat, adierazi du Jesús María Rodríguez Gómez izendatzea justifikaturik dagoela erakundearen ordezkagarritasunean eta aniztasun politikoan.

Romero jaunak, Arangurengo alkateak, hitza hartuta, galdetu du zergatik ez duen Batzordeak izendatu bigarren presidenteordea eta zergatik ez den independente bat hartzeko araua bete Javier Pérez Cueva ordezkatzeko.

Presidenteak azaldu du Batzordeak izendapena eginda bigarren presidenteorde berria has zitekeela segituan aurrekoak parte hartzen zuen batzorde eta kontseilu guztietan, Batzarrak berretsi edo onetsi beharrik gabe, kontuan izanik zenbait kasutan presazkoa zela izendapen hori.

Jesús María Rodríguez hautatzeari dagokionez, errepikatu du ordezkagarritasuna eta aniztasun politikoa izan direla horren arrazoiak.

Jesús María Rodríguez hitza hartuta, eskerrak eman ditu NUKFko bigarren presidenteorde hautatzeagatik.

*Eugiko Kontzejua
Hiriberri Deierriko Kontzejua
Itzalleko Kontzejua
Larragetako Kontzejua
Larraiako Kontzejua
Mendilibarriko Kontzejua
Muskizko Kontzejua
Nabaskozeko Kontzejua
Olloko Kontzejua
Orriko Kontzejua
Saratsako Kontzejua
Undioko Kontzejua
Ustaizeko Kontzejua
Erriberako Mankomunitatea
Irati Hiri Hondakin Solidoak
Kudeatzeko Mankomunitatea
Iruñerriko Mankomunitatea
Itzagako Administrazio Zerbitzuen
Mankomunitatea
Izarreibarko Mankomunitatea
Nafarroako Errege Bardeako
Batzordea*

Barricarte jaunak, Zizur Zendeako alkateak, galdetu du Batzordean dagoen toki hutsa beteko den.

Idazkari nagusiak azaldu du Batzorde Betearazleak 25 kide izan ditzakeela gehienez. Kasu honetan, ez da bidezkoa ordezkapenik egitea presidentea zein presidenteordeak Batzorde Betearazleko berezko kideak direlako, Batzordeko gainerako kideak ez bezala, horiek beren toki entitatea ordezkatzegatik baitira kide. Kide horietako bat kargugabetu izan balitz, hura ordezkatzeko duen entitateko alkate-udalburu berriak ordeztu beharko zukeen.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. gaia- NUKFren 2016ko Kudeaketa Txostena onestea.

Presidente jaunak NUKFren 2016ko Kudeaketa Txostena aurkeztu du, deialdiarekin batera igorri dena, eta laburki azaldu ditu NUKFk 2016an egindako jarduketak.

Bereziki azpimarratu ditu, NUKFren bizitzan parte-hartzea eta gardentasuna sustatzeko asmoz, 2016ko jarduketaren programa betetzeko egin diren jarduketak, bai eta, toki entitateen mapa berrantolatzeari buruz, toki entitateek egindako proposamenak zehazteko jarduketak ere.

Azken horiei dagokienez, gogora ekarri du prozesu parte-hartzailearen lehendabiziko fasea bukatu dela, zeinetan eskualdeetako bilkurak, toki ogasunei, mankomunitateei eta kontzejuei buruzko beste batzuk egin baitira, eta, horri buru emateko, Toki Administrazioako kontseilariari proposamen agiri bat eman zaiola.

Berebat, bi lan-ildo nabarmendu dira, etorkizunean ere haiekin jarraitzeko asmoz lantzen direnak: bat, herritarren partaidetza, eta bestea, berdintasuna.

Langileen egituraz bezainbatean, adierazi da Asun Nieto Zabala kontratatu dela zerbitzu juridikoan, Berta Enrique idazkari nagusi izendatu ondoan, eta deialdi bat onetsi dela euskararen teknikari-itzultzaile izateko lanpostu baterako, Federazioak alor horretan dituen beharrei heltzeko.

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei:

Castillo jaunak, Azkoiengo alkateak, hitza hartu eta adierazi du beharrezkotzat jotzen duela Kontratuei buruzko Foru Legean kontratu txikientzat egun aurreikusten den gehieneko zenbatekoa handitzea, oso zenbateko txikia baita, eta NUKFk ematea zenbateko hori gainditzen duten zerbitzuak.

Presidenteak adierazi du lanean ari dela orain Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzeko eta gai hori azter litekeela.

Batzar Nagusiaren onespenera jarrita,

Aho batez,

ERABAKI DA: NUKFren 2016ko Kudeaketa Txostena onestea, aktari atxiki zaiona eranskin gisa.

4. gaia - NUKFren 2017ko Jarduketan Programa onestea.

Presidente jaunak NUKFren 2017ko Jarduketa Programa azaldu du, eta toki entitateen mapa berrantolatzeko prozesuaren bigarren faserako aurreikusitako jarduketak nabarmendu ditu.

Hitza eman zaie bertaratutakoei.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, hitza hartu eta adierazi du ezen, NUKFren eginkizunari dagokionez, Jarduketa Programak zenbait gai faltan dituela, eta, horregatik, kontrako botoa emanen duela. Besteak beste, babesik eza toki entitateen arazo zehatzen aurrean, toki entitateen mapan eta mankomunitateen finantzazioaren jaitsieran. Orobat, ez da babesik eman PAI mantentzeko.

Ochoa andreak, Leringo alkateak, bi kontu planteatu ditu: bata da berankortasunaren arazoa, zenbait udalek zirkulazioaren gaineko zergarekin pairatzen dutena, NUKFko zerbitzu teknikoei helarazi zitzaizen bezala, eta, bestea, berriz, Jurramendiko Mankomunitatea erdibitzearekin sor litekeena.

Toral andreak, Zizur Nagusiaren ordezkariak, iradokizun bat egin du aurrekontuaren prestaketari buruz, eta diskriminazio positiboa eta zeharkakotasuna aldarrikatu ditu.

Castillo jaunak, Azkoiengo alkateak, bi gai azaldu ditu, bata toki entitateen finantzazioaren inguruan, eta bestea, berriz, mapak mankomunitateen langileen gainean izan dezakeen eraginaren inguruan. Azken horri dagokionez, planteatu du langileria onetsi beharrekoa dela eta orain ez dela jakiten zer zerbitzu emanen den eta zein ez.

Presidenteak hitza hartu eta adierazi du ezen, finantzazioaz bezainbatean, toki entitateen jarrera argi gelditu dela, zehaztu baita portzentaje finko bat ezarri behar dela Foru Komunitatearen diru-sarreretako parte-hartzean.

Bigarren gaiaren gainean, adierazi du berrantolatzeko prozesua ez dela berehalakoa izanen, prozesu luzea baita, eta, Gobernuak aurreikusitakoari jarraituz, 2017aren amaieran bukatuko dela, lege aldaketa batekin.

Garjón jaunak, Oltza Zendeako alkateak, aholkularitza eskatu du administrazio elektronikoari buruz, zein diren programa egokiak eta abar jakiteko.

Presidenteak adierazi du gogoan hartzen duela eta ulertzen dituela gai horrek dakartzan egonezinak eta babes beharra. Adierazi du prestakuntza ekintzak egiten ari direla eta lanean jarraituko dela, ANIMSArekin eta Toki Administrazioako Departamentuarekin harremanetan jarriz.

Zozaya andreak, Eloko alkateak, adierazi du ez dagoela ados NUKFk prozesuan egindakoarekin, ezin baita mugatu beste eragile bat izatera; aitzitik, eragile nagusia izan behar du, asko baitu esateko.

Pablo Azconak argitu du esan nahi izan duela Gobernuari dagokiola berrantolaketaren ardura, hark hartu baitu konpromisoa, baina, bistakoa denez, toki entitateek lortu behar dutela berrantolaketa horrek haien eskakizunak jasotzea.

Kontrako botoak 12 izanik eta abstentzioak, berriz, 1,

ERABAKI DA: NUKFren 2017ko Jarduketan Programa onestea.

5. gaia.- NUKFren 2017ko Aurrekontua onestea.

Presidenteak aurrekontua laburbildu du eta idazkari nagusiari eman dio hitza. Horrek partidarik nabarmenenak azaldu ditu, 2016ko aurrekontuarekin eta likidazioarekin alderik handiena dutenak, alegia.

NUKFren onespenera jarrita.

ERABAKI DA: Abstentzioak 10 izanik eta kontrako botorik gabe, NUKFren 2017ko aurrekontua onestea.

6. gaia. Galde-eskeak.

Romero jaunak, Arangurengo alkateak, hitza hartu eta galdetu du zer egin behar den soberakinarekin, ez duelako zentzurik. Haren ustez, toki entitateentzat erabili beharko litzateke.

Presidenteak azaldu du aurreko ekitaldiei dagokiela; izan ere, haietan, superabita zutela onetsi ziren aurrekontuak. Aurrekontu honetan eta hurrengoetan, gastua handitu egingen da, lanpostu hutsak beteko baitira eta euskara teknikaria kontratatuko baita. Adierazi du ezen, NUKFren eginkizunen inguruan hausnartzeko prozesuan, egin beharreko jarduketan eta zerbitzuen inguruan eztabaidatzen ahalko dela.

Ausejo andreak, Cortesko alkateak, adierazi du gaztelania hutsez igorri beharko litzatekeela dokumentazioa Erribera aldera, eta, soilik entitatearen batek eskatuz gero, euskaraz.

Toral andreak, Zizur Nagusiaren ordezkariak, Antzokien Sareko burua ere badenez, esplikatzen du sare horrek duen defizita.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko zazpiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEA

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.